

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**253/2023 Foru Agindua urriaren 10koa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoan “hiriguneetatik kanpoko kultura-eskaintza zabaldu eta dibertsifikatzeko laguntzak” gauzatzeko dirulaguntzen 2023ko bigarren deialdia. Europar Batasunak (NextGenerationEU) Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan finantzatutako deialdia**

2020ko uztailaren 21eko Europar Batasuneko Kontseiluak Berreskuratze Europako Tresna abian jartzea onetsi zuen. Tresna horren garapenean, Parlamentuak eta Kontseiluak Europar Batasuneko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua eman zuten, zeinaren bidez ezartzen baita “NextGeneration EU” funts berriaren bidez finantzatuko den berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa, haren elementu nagusia “Berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa” izanik.

Ondoren, Ministro Kontseiluak 2021eko uztailaren 13an egindako bileran, Kultura eta Kiroleko ministroak proposatuta, erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez baimentzen baita autonomia erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek kudeatutako kredituen lurralde banaketaren eta banaketa irizpideen proposamena egitea Kultura eta Kirol Ministerioaren aurrekontuaren kontura, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren “Kultura industriaren balioa handitzea” 24. osagaiaren esparruan.

“Kultura industriaren balioa handitzea” izeneko 24. osagaiak Espainiako kultura industriaren balio katea indartzera bideratutako erreformak eta inbertsioak jasotzen ditu, hiru ardatz estrategiko hauek sustatuz: lehiakortasuna, lurraldearen dinamizazioa eta kohesioa, eta kultura zerbitzu handien digitalizazioa eta jasangarritasuna. Horren barruan hainbat proiektu daude, eta besteak beste, “C24 Kultura industriaren balioa handitzea. I2 Kultura dinamizatzea lurraldean zehar. C.24. I2. P1. Kultura eskaintza hirikoak ez diren eremuetan zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak”. Horren arabera, Next Generation funtsen bidez finantzaketa hori jasotzen duten autonomia erkidegoek kredituak bideratu beharko dituzte beren lurralde eremuko erakunde publiko eta pribatuetera 2022. eta 2023. urteetan laguntzak emateko deialdi publikoetarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, erabaki bat hartu zuen Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketan eta proiektuen aurrekontuen eta kontabilitatearen betearazpenari buruz eta kudeaketa eta jarraipenari buruz (martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpena).

Erabaki horren laugarren puntuak honela dio, hitzez hitz: Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik eratorritako funtsak banatzearen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuko Administrazioetik lor ditzakeen eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen artean adostutako eskumen mugaketaren arabera, lurralde historikoetako foru organoei gauzatzeko dagokien azpiproiektuak finantzatzera lege atxikita dauden diru sarreren lurralde banaketa lurralde historikoen artean alde aurretik hitzartuko da foru aldundiekin edo, bestela, kasuan kasuko erakunde arteko organoen baitan.

Foru aldundiek beren gain hartuko dituzte, beren eskumenen esparruan, berreskuratze eta erresilientzia mekanismoaren araudiak erakunde betearazleei esleitzen dizkien konpromiso eta betebeharrak guztiak, haiei baitagokie azpiproiektuak betearaztea.

Hala, 2023ko ekitaldirako, Arabako Foru Aldundiari 108.187,55 euroko funtsa dagokio, "Hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak (C24. I2. P1)" finantzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuari dagokionez, finkatzen da Kultura Zuzendaritzaren eginkizunak direla kultura beharrak aztertzea eta neurri egokiak proposatzea, arteak nahiz kultura ekimenak bultzatu, finkatu eta garatzeko, bai eta kultura ekintza eta kulturaren zabalkundea sustatzeko deialdiak eta laguntzak programatzea eta ebaluatzea ere. Eskumen horiek baliatuta, Kultura Zuzendaritzak esparru egokia garatu du Arabako kultura sektorea biziberritzeko, sustatzeko eta hari laguntzeko, dirulaguntzen urteko deialdiak onetsiz.

Arabako Lurralde Historikoan hirikoak ez diren eremuetan kultura eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak gauzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horien 2022rako deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 20ko 37/2022 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren. Europar Batasunak - NextGenerationEU finantzatutako deialdia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 20/2023 Foru Dekretuaren bidez, laguntzen oinarri arautzaileen aldaketa eta 2023ko deialdia onartu ziren, 108.187,55 euroko gehieneko zenbatekoarekin. 2023ko abuztuaren 3ko 201/2023, 202/2023 eta 203/2023 Foru Aginduen bidez ebatzi ziren deialdi honetako hiru laguntza-modalitateak. Deialdiaren baldintzak betetzen zituen eskabide nahikorik aurkeztu ezenez, esleitu gabeko soberakin bat geratu zen, 61.095,06 eurokoa.

Onartutako oinarriak epe barruan bete ditzaketen kultura-proiektuak egiteko aukera dagoela kontuan hartuta, eta interes orokorreko arrazoiak daudela iritzita, 2023an Arabako Lurralde Historikoko hiriguneetatik kanpoko kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko dirulaguntzen deialdi berri bat onartzea proposatzen da. Deialdi hori Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 20ko 37/2022 Foru Dekretuak onetsitako eta Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 20/2023 Foru Dekretuak aldatutako oinarrien arabera arautuko da, eta gehienez 61.095,06 euroko zuzkidura izango du, Europako NextGenerationEU funtsetatik etorriak.

Nahitaezko txostenak ikusi dira.

Ondorioz, niri emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoan «hiriguneetatik kanpoko kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak» gauzatzeko dirulaguntzen 2023ko bigarren deialdia, xehetasun hauekin:

– Dirulaguntzaren eskaera eragin duten proiektuen gastuak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean gauzatu beharko dira.

– Deialdiaren gehieneko zenbatekoa 61.095,06 eurokoa da. Deialdiaren oinarri arautzaileen arabera gutxienez 25.000,00 euroko eta gehienez 40.000,00 euroko dirulaguntza eman behar denez, gehienez 2 proiektuk jaso ahal izango dute dirulaguntza. Hori guztia, kontuan hartuta diruz lagundu daitekeen gutxieneko aurrekontua 31.250,00 eurokoa dela. Hautatutako proiektuek jasoko dute baloraziorik handiena, oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz.

– Deialdiak erakunde onuradunen bi modalitate aurkezten ditu:

- 1. modalitatea: irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak eta Langile Autonomoen Araubide Bereziari atxikitako profesionalak. Diru-zuzkidura: 30.000,00 euro.
- 2. modalitatea. Irabazi-asmorik gabeko elkarteak. Diru-zuzkidura: 31.095,06 euro.

– Eskabideak aurkezteko epea bost (5) egun baliiodunekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena. Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko hiriguneetatik kanpoko kultura-eskaintza zabaldu eta dibertsifikatzeko laguntzak gauzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileetan aurreikusitakoaren arabera arautzen da. Dirulaguntza horiek Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 20ko 37/2022 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren, eta Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 20/2023 Foru Dekretuaren bidez aldatu. Oinarri horiek 2022ko irailaren 23ko 109. ALHAOn eta 2023ko maiatzaren 29ko 62. ALHAOn argitaratu ziren. Baita Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitakoa ere.

Hirugarrena. Laguntza horiek Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatuko ditu, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko gastu-partida hauen kargura ordainduko dira, honela banatuta:

- 1. modalitatea: 70105. G/334700/47900707 NGEU 2023: Lurralde historikoko hiriguneetatik kanpoko kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak. Enpresak. 30.000,00 euro.
- 2. modalitatea: 70105. G/334700/48100727 NGEU 2023: Lurralde Historikoko hiriguneetatik kanpoko kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak. Elkarteak. 31.095,06 euro.

Laugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu titularri, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 10a

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*  
*ANA M. DEL VAL SANCHO*

*Kultura zuzendaria*  
*M. INMACULADA SÁNCHEZ ARBE*